

Ihesi


Euskal Herria ezagutuz

TESTUA: KOLDO ARGANDOÑA

Kalez kale, mendez mende

JON TORNER

Urretxu (Gipuzkoa)



XIV. mendearen amaieran jarri zuten Urretxuren lehenbiziko hazia, ordura arte hutsik zegoen eremu batean. Hala hasi zen udalerrri txiki eta zeharo kaletar honen historia. Esan nahi baita, baserriak ez duela izan inguruko herrietan adina garrantzirik Urretxun, Euskal Herriko abeltzantza eta nekazaritza azokarik entzuetetsuenetakoa bertan egiten den arren. Kale artean dago herriko historiaren arima, eta kale eta historia horietan barrena abiatuko gara gu berehala.

Urretxu errege sariaz sortu zen, 1383ko Hiri Gutun baten bidez. Hala, Gaztelako erregearen babespean geratu zen herria, Ahaide Nagusien arteko gatazkek herritarren artean ziurgabetasun handia eragiten zuten garai hartan. Horregatik eman zioten Urretxuri *Villarreal de Urrechua* izena, jatorriz.

Antza, Urretxu edo, hobeto esanda, Urretxuko gune historikoa, eremu berri batean eraiki zuten; hau da, aurretik inolako eraikinik ez zegoen eremu batean. Hala dio Hiri Gutunak; horrez gain, dokumentu horrek argi adierazten du nola eraiki behar ziren etxeak. Horixe berresten dute gaur egun arte egin diren azterketa arkeologikoez, etxe berriak altxatzeko eraikinen bat eraistean. Gune historikoko hainbat lekutan egindako azterketa horietako batean ere ez da agertu herria sortu baino lehenagoko eraikinik.

Herria eraikitzeko lekua –hots, egungo gune historikoa– ez zen ausaz erabaki. Batetik, Gune Historikoa ez dago Urola ibaiaren ondo-ondoan, pixka bat gorago baizik, herria uholdeez babesteko. Bestetik, hirigunea ez zuten eraiki nahi izan ordurako existitzen zen Zumarraga ondoan.

Beste zenbait kokaleku ere baztertu egin zituzten, berez egokiak izan arren, Zumarragako Legazpi Etxearen eragin eremuan baitzeuden; izan ere, XIV. mendean garrantzi izugarria zuen dorretxe horrek.

Horrez gain, kontuan hartzen bada Gaztela eta Frantzia lotzen zituen errege galtzada Antzuolatik Santa Barbara alderantz zihoala eta handik Urretxura jaisten zela Nekoalde kaletik barrena, ohartuko gara herria sortzeko aukeratutako lekua garai hartarako egokiena izan zela.

Etxeetako hormak harresi

Herriaren hasierako egitura morfologikoa Erdi Aroko ohikoa zen: erdigunean, esparru angeluzuzen bat, bi kale nagusik banatuta. Kale nagusi horiek, berriz, bigarren mailako beste zenbait kalek zeharkatzen zituzten. Horrek guztiak 1,6 hektarea hartzen zituen, eta harresi bat zuen inguruan, zulo eta guzti, garai gatazatsua baitzen. Alabaina, argi utzi behar da harresi horiek ez zirela gazteluetan ikusten ditugunak bezalakoak; aitzitik, eraikinen hormak erabiltzen zituzten harresizat.

Hasieran, Urretxun bi kale nagusi baino ez zeuden; XVI. mendean

erdialderako, berriz, hirigunea erabat garatuta zegoen, eta herritarrak inguruetan pilatuta bizi ziren. Bertatik igarotzen zen Zalgurdien Errege Bidea –Erresumaren Hiriburua eta Frantziaren arteko komunikabide nagusia–, eta horrek izugarritzko eragina izan zuen herriaren garapenean: Urretxu nahitaezko geltoki bihurtu zen, bai bidaiarientzat, bai postarentzat. Aurkitutako aipamenean arabera, hainbat pertsonaia ospetsu igaro ziren Urretxutik. Jatorrizko bi kale nagusi haiek Goiko Kale eta Beheko Kale ziren; azken horri, ordea, Kale Nagusi deitzen zitzaion, bertan baitzeuden herriko eraikinik garrantzitsuenak.

XIX. mendean bukaeran, egungo izena eman zitzaien bi kale horiei: Goiko Kaleari Jauregi Kalea jarri zioten, *Artzaya* gerrillari ospetsuaren omenez. Izan ere, Jauregi kale hartan jaioa zen *Artzaya*, eta Independentziako Gerran Napoleonen armadan aritu zen borrokan, bikain aritu ere. Kale Nagusiarri Iparragirre Kalea jarri zioten, kale hartan jaioetako bertsolari ospetsuaren omenez. Huraxe izan da, hain zuzen, Urretxuk eman duen pertsonaiarik unibertsalena.

ANDONI CANELLADA/A.P.



Iparragirre plaza, Urretxuko bardo ospetsuaren estatua eta guzti.



JON TORNER



GOTZON ARANBURU/A.P.

Ezkerreko argazkian, Udaletxea, Ipeñarrieta-Korral jauregia jatorriz; eskuinean, Iparragirrenen jaiolekua, haren izena daukan kalean. Hurrengo orrialdean, dantzariak Ipeñarrieta jauregi aurrean, eta Jauregi kalea, atzean eliza ageri dela.

Kale horien inguruan eta gerizpean, beste zenbait kale sortu ziren XV. mende amaieran: *Calle del Retén* (egungo Areizaga kalea), Zumarragarako errege bidea zena; *Calle del Arrabal* (egungo Nekolalde kalea) eta *Calle de Postas*, egungo Labeaga kalearen hasierako atala.

Gipuzkoako herrien artean, Urretxu da udal barruti txikieneko bat. Horregatik, beste herri batzuetan baino baserri gutxiago daude bertan.

Kalea izan da, inondik ere, herri honetako gizarte bizitzaren muina. Azken 100 urteetan gutxienez, Urretxun, Gipuzkoako herri gehienetan ez bezala, jende gehiago bizi izan da kalean baserrietan baino.

Ezaugarri horrek nolabaiteko berezitasuna eman dio herriari: herritarrek egunero bizi behar izan dute elkarrekin, eta horrek elkarren artean nola edo hala konpondu beharra eragin du. Ondorioz, bizila-

gunen arteko laguntza eta antolakuntza sistema bitxiak sortu dira.

Hori dela eta, biztanle kopuruari eta udal barrutiari dagokionez, duela 200 urte baino gehiagotik Urretxu bere eskualdeko herririk txikiena izan den arren (Ezkio, Itsaso, Gabiria, Zumarraga, Legazpi eta Antzuola), inguruko herriak baino garrantzi handiagokoa izan da gizarte arloan, batez ere XVI. eta XVII. mendeetan. Garrantzi horrek behera egin zuen XVIII. mendearen bukaeran. Ez da harritzekoa, beraz, urretxuarrak bere herriaz harro sentitzea.

Santa Lutzitako feria, landatik asfatora



GOTZON ARANBURU/A.P.


URTERO, ABENDUAREN 13AN, Euskal Herriko abeltzantza eta nekazaritza azokarik garrantzitsuenetako bat hartzen dute Urretxu eta Zumarragako kaleek: Santa Lutzitako feria. Ospakizunaren jatorria, ordea, ez dago bi herri horietan, Ezkion baizik. Bada zenbait mende hantxe hasi zela azoka egiten, Santa Lutzia basilizaren inguruetan. Baina, itxuraz, lekua ez zen

egokiena. Bestelako eraikinik ez zela eta, iluntzean, gizon-emakumeek basilizan bilatzen zuten hotzetik babesa, eta horrek, lruñeko gotzainaren iritziz, arriskuan jar zitzakeen ohitura onak eta eraikinaren espiritualitatea bera ere. Hala, azoka debekatzeko eskatu zien Gipuzkoako Batzar Nagusiei, eta baita lortu ere, 1726. urtean.

Orduan, zenbait urretxuar jauntxok baimena eskatu zuten Santa Lutzitako azoka beren herrian egin zedin. 1727an lortu zuten, Felipe V.a espainiar erregearen agindu baten bitartez. Azoka erabat urretxuarra izan zen XIX. mendearen erdira arte, baina garai hartan hainbat saltoki hasi ziren Zumarragako kaleetan ezartzen. Horrek Urretxu herriaren protesta ofiziala eragin zuen, baina alferrik. Gaur arte.

Urretxuko aristokrazia

Non islatzen da, ordea, garrantzi hori guztia? Batez ere herriko aristokratengan eta dirudunengan: hala nola, Ipeñarrietarrak, Areizaga baroi-baronesak eta Nekolalde, Mantxola, Hurtado de Mendoza eta Barrenetxea familiak. Are gehiago: XVI. mendearen bukaerako eta XVII. mendearen hasierako urte batzuetan, Legazpi Etxeko jabeak Urretxuko Arriaran Goikoa etxean bizi izan ziren. Pertsona horiek argi adierazi zuten beren handitasuna, eraikitako etxe handi eta dotoretan: aipatzeko modukoak dira Ipeñarrieta-Korral jauregia (egungo udaletxea), Areizaga jauregia eta garai bateko Nekolalde jauregia, besteak beste. Beraz, bistakoa da Urretxuren garrantzia oso lotuta zegoela bertako herritar ospetsuenekin. Herritik joan zirenean –XVIII. mendearen bukaerarako ez zen aristokraziako kiderik geratzen bertan–, herriaren garrantziak behera egin zuen.



GOTZON ARANBURU/A.P.



JON TORNER

Horrez gain, eskribauek, merkatariek eta artistek (eskultoreek, pintoreek, arotzek) ere izan zuten nolabaiteko eragina garai batean Urretxu modako herri bihurtzeko; baita herriko festek, tabernetako giroak eta azokek ere. Santa Lutziakoak, esaterako; hain zuzen, nobleek azoka hori Urretxun egitea lortu zuten. Eta kontuan hartu behar da *Villarreal* herriak nekazaritza eta abeltzaintza arloan garrantzirik ez eduki arren gertatu zela hori guztia. Inguruko lehenbiziko postetxea ere XVIII. mendean jarri zuten Urretxun.

Gune historikoaren gainbehera isila

Herriko hiriguneak nagusitasunari eutsi zion, Norteko Ferrokarrila trenbidea sortu zen arte. Izan ere, Zumarragako geltokia ireki zutenean, auzo berri bat sortu zen inguruan, eta orduan jendea Urretxuko kale zaharretatik kanpo ere hasi zen bizitzen;

baina eraginari dagokionez, hiriguneak nagusitasunari eutsi zion.

XX. mendearen hasieran, Urretxuko biztanle gehienak gune historikoan bizi ziren oraindik. Industrializazioarekin batera, ordea, jende ugari joan zen Urretxura bizitzera, eta, ondorioz, auzo berriak sortu ziren. Hortxe hasi zen gune historikoaren gainbehera geldoa, gaur egunera arte iraun duena.

Gune historikoa hainbeste hondatu zen (Jauregi kalea, batez ere), Udalak Barne Erreformako Plan Berezi bat bultzatu baitzuen egoerari aurre egiteko. Etxebizitzak zaharkituta zeuden, eta oso zaila zen erreformak egitea. Egitasmo horrekin, iragana eta etorkizuna uztartzen saiatu dira herriko agintariak; hau da, gune historikoa bizitzeko leku atsegin bihurtzen, XXI. mendeko aurrerapen guztiak dituela, baina gaur arte iraun duen kutsu historikoa ahaztu gabe. Fase korapilotsu horretan dago Urretxu egun. ■

Jateko

Jai Alai jatetxea

Iparragirre, 10. Tel. 943-72 14 65

Apain jatetxea

Ipeñarrieta, 18. Tel. 943-72 22 35

Navarro jatetxea

Iparragirre, 18. Tel. 943-72 18 67

Lo egiteko

Santa Kutz nekazal hotela

Santa Barbara bidea, z/g

Tel. 943-72 59 59

www.hotelsantakutz.com

Juana Elgarresta pentsioa

Ipeñarrieta, 2

Tel. 943-72 22 50



Urretxuko Udala: Iparragirre 20. 20700 URRETXU Tel.: 943 03 80 80 Faxa: 943 03 80 81
e-posta: urretxu@urretxu.net www.urretxu.net